



GOBERNU BATZARRA

2022.06.21

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Patxi Amantegi Zubiria
Xabier Balerdi Tolosa
Xarles Iturbe Pasaban
Begoña Tolosa Mendia
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita batean, 13:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2022ko ekainaren 7koa.
2. Onartzea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren obra-proiektuaren aldaketa.
3. Dekretu hauen berri ematea:

2022/1831 Dekretua: 2022/16 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2022KO EKAINAREN 7KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2022ko ekainaren 7an egindako ohiko batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONATZEA TOLOSAKO USABALGO 3. FASEKO KIROL INSTALAKUNTZEN ETA URBANIZAZIO OSAGARRIAREN OBRA-PROIEKTUAREN ALDAKETA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren obrak.
Unitate sustatzailea	Hirigintza Saila
Espedientea	2021OPRO0013



II.- AURREKARIAK

Lehenena.- 2021eko azaroaren 11n, Marta Álvarez, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos, Tomás Valenciano eta Iñigo Garcia arkitektoek Tolosako Usabalgo 3. Faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren exekuzio-proiektua (legearen arabera bisatuta E-2021/01328) aurkeztu zuten.

Bigarrena.- Proiektuak aire libreko kirol instalakuntzen eremu baten berrantolaketa jasotzen du. Exekuzio proiektuak Ángel de la Hoz eta Cristina Fontán arkitektoek 2020ko urtarrilean sinatutakoa aurre-azterlana orientazio gisa hartu du, batez ere, C.01 planoan ezarritako azpieroemuen antolaketari jarraituz.

Hirugarrena.- C.01 planoak Ur Agentziaren aldeko ebazpena jaso du eta bertan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Eremu honi dagokion garapena «Ipar Usabal» ST2 eremuko Plan Bereziaren arabera gauzatu beharra dago.

Laugarrena.- Udal arkitektoak 2022ko otsailaren 11n igorritako AB22_09 txostenean, datu hauek jasotzen ditu:

2.2. PROIEKTUAREN HELBURUA:

Aurkeztutako memoriaren arabera, proiektuaren xedea hauxe da:

Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzak eta urbanizazio osagarria gauzatea ahalbidetuko duen proiektua definitzea, hau da, aire libreko kirol instalakuntzen eremu baten berrantolaketa.

2.3. ERAIKINA EGOKITZEKO PROPOSAMENA:

Aurkeztutako proiektuaren memorian horrela definitzen da:

EGUNGO EGOERA

Proposamena parke batean kokatzen da; parkeak bi kirol instalazio formalizatu dauzka une honetan: skate pista bat eta tirolina bat; horrez gain, neurri txikiagoan formalizatutako beste kirol instalazio bat ere badu, baita trial-pista bat eta oinezkoen eta bizikleten bizikidetzarako bide bat ere, parkea zeharkatzen duena. Oria ibaiaren eta Araxes errekaen elkarguneak, hesitutako futbol-zelaiak eta hego-ekialdetik gorantz hasten den hegala mugarriztatzen dute parkea. Parkearen zati handienaren topografia laua da neurri handi batean.

Parkea erabilera- eta kontserbazio-egoera egokian dago oro har. Oria ibai aldera, ur bazterreko landaredia berez hazi da, oso hostotsu, hostotsuegi izateraino, ibaia estali ere egiten baitu bideak parkean barrena egiten duen ia ibilbide osoan. Parketik aurrera ibaia agerikoago eginez gero, proiektuak ere irabazi egingo du agerikotasunean. Ur bazterreko zuhaitzak inausita eta betegarri artifizial irtenak kenduta, ibaiaren paisaia parkearekin eta natura-ingurunearekin hobeto integratzeko aukera izango da. Bestalde, erabiltzaileen arabera antolamendu, berrian zuzendu beharko litzatekeen egoera bat dago. Une honetan, bankuetan egoteko eremua bidean bertan kokatuta dago, skate pistara eta iturri aldera lerratuegia gainera, eta, horregatik, interferentziak sortzen dira txirringularien eta aisiarako gunean dagoen jendearen artean. Hori hala da bankuek, skate pistak eta



bideak bat egiten dutelako gune berean; hortaz, antolamendu berrian bereziki azpimarratuko da 3 elementu horiek (skate pista, egoteko eremua eta bidea) bereizi egin behar direla, eta oinezkoen eta bizikleten bidea zabaldu egin behar dela.

PROPOSAMENA

Antolamenduaren funtsezko helburua da Usabalgo eremuaren barruan zenbait kirol instalazio berri sortzea. Egungoen osagarri izango dira instalazio horiek: egungo skate pista zabaldu egingo dute, egungo tirolina lekuz aldatuko dute, eta bizikletarako pump track-eko pista bat eta bizikletentzako trialeko beste pista bat ezarriko dira.

Urbanizazioaren azalera guztira:		14.300 m2
Horietatik,	Bidearen eta ibilgailu-sarbidearen azalera gogorra:	1.523 m2
	Egoteko eremuen azalera (berdegunea):	220 m2
	Skate pistaren eremuaren azalera:	2.292 m2
	Pump track-eko pistaren eremuaren azalera:	1.430 m2
	Tirolina-eremuaren azalera:	360 m2
	Trial-pistako eremuaren azalera:	1.645 m2
	Gainerako azalera – berdegunea:	6.830 m2

SKATE PISTA

Parkeak skate-ko kirol-instalazio bat dauka: pool elementu bat (bainuontzia) zenbait elementu irtenek inguratua, hala nola barriers-ak eta altzairuzko barrak. Patinatzaileen ustez, lehendik dagoen instalazioa egokia da tarteko maila dutenentzat eta hasiberrientzat, eta hura zabaldua lortu nahi da instalazio horrek skateboard-eko maila handiagoko diseinu baterako bidea ematea. Horretarako, eta lehendik dagoen pool-etik abiatuta, zenbait elementu berri diseinatu dira inguruan, patinaje-sekuentzian oinarrituta kirol praktika horren modalitateen arabera. Hala, «hiri-elementuak» eta «arrapalak» honela antolatuko dira:

- 2 pool (bainuontziak) tamaina desberdinekoak eta multzoka, lehendik dagoen pool-aren lerroari jarraipena emanaz.

- Elementu irtenak: arrapalak eta barriers-ak, lehendik dagoen pool-aren eta futbol zelaiaren arteko pasilloan, sekuentzia bat osatuz: Slide street-a + Fun-box-a + kutxa + barrier kurbatua + barra kurbatua.

- Elementu irten txikiagoak: hormigoizko barra + kutxa barrarekin + piknikguneko mahai metalikoa.

Skate eremu osoa, alboko pasilloak barne, patinatzeko pentsatu da, eta eremu mugatu bat osatzen du, parkeko gainerako guneetatik funtzionalki berezita, erabiltzaileen artean interferentziarik izan ez dadin. Skate eremua eta bidea tarte berde batez berezita badaude ere, ibiltzeko/patinatzeko moduko skate eremuko perimetroa errematatuta dago zenbait zintarri irtenen bitartez, abiaduran doazen patinen tope gisa dihardutenak, bidetik oinez doazenak babesteko.

Errodatze gainazalak hormigoi leunduan proiektatu dira. Eta pool-en hondoan, berriz, hustubideak jarriko dira, gainetik patinatzeko modukoak, eta udal sarearekin konektatuak euri ura bildu eta eramateko.



PUMP TRACK PISTA

Pump track-eko pista diseinatzeko, alboko 3 trazatu/pista sortuko dira, bakoitza bere zailtasun mailarekin, mota guztietako erabiltzaileei parte hartzeko aukera emateko:

Hasiberriak/haurrak, erdi mailako zailtasuna eta zailtasun handia. Erdi mailako eta maila handiko trazatuek eremu bat dute agerian, bide bat bestearekin lotzeko eta alderantziz egiteko prestatua: 8 baten itxura dauka, trazatua luzatzeko eta konbinatzeko lagungarria.

Multzoko eremu batek plataforma banatzaile batean sartzea ahalbidetzen du, eta trazatuetan barrena badira beste zenbait plataforma-puntu atseden hartzeko eta gelditzeko aproposak, intentsitate biziko jarduera bat —eta beraz, denboran laburra— dela aintzat hartuta.

Trazatu zuzenak diseinatu dira dubbies sekuentzia soil edo bikoitzekin eta lautadan, aldatzeko aukera emateko eta behar adinako abiadura eta inertzia hartu ahal izateko, hartara, ibilbide osoan berriz ere pedalei eragiteko beharrik ez izatearren.

Trazatu kurbatuetako peralteek kurbadura-erradioak eta profil konkaboak dituzte, kirolean aritzeko aproposak. Errodatze gainazalak eta alboko ezpondak hormigoiz leunduan proiektatu dira, eta behealde horizontalen barneko irlatxoak modu naturalean egokitu dira. Udal sareari lotutako drainatzea eta hustubideak izango dituzte irlatxo horiek, euri ura biltzeko.

TRIALEKO PISTA

Trialeko kirol-instalazioak ez du hormigoizko pista formalizaturik; aldiz, eremu natural bat da, eta eremu horretan, orain, lur solteko eremuak eta arroka txikiak daude nahastuta.

Eremu horretan, elementu aurrefabrikatuz osatutako «trial-multzoak» eta arrokek denboraldien arabera kokatzen, taldekatzen eta mugitzen dira; izan ere, berez, ez dago elementu sekuentzia bat, eta oso modalitate teknikoa da, elementu multzo bakoitzari heltzea eskatzen duena.

Gainera, trial eremuaren barruan hegoaldeko hegala abiatzen da, eta, horrela, malda aldi berean pistarako oinarri gisa baliatuko da.

TIROLINA

Tirolina pistaren instalazioa lekualdatu egingo dute egungo kokapenetik barruko pisten antolamendu orokorra «trinkotzen» duen eremu batera; hala, tirolina instalatzea ez da oztopo funtzional bat izango. Zehazki, futbol-zelaiaren hegoaldeko hesiaren

2.6. AURREKONTUA

1. CAMINO			
	MOVIMIENTOS DE TIERRAS		28.348,25
	DEBIDOS		14.852,11
	INSTALACIONES		61.832,81
-01-01	ELECTRICIDAD	66.460,88	
-01-01	FONOTERAPIA	397,41	
-01-01	GANASAMENTO	28973,73	
	PAVIMENTACION		76.697,61
	EQUIPAMIENTO		7.311,50
	JARDINERIA		20.388,28
	CONTROL DE CALIDAD		2.437,75
	SEGURIDAD Y SALUDO		1.422,11
	GESTION DE RESIDUOS		1.076,33
	CAMINO. SUBTOTAL EJECUCION MATERIAL		236.078,88
	13.01% Gastos generales		30.690,25
	6.00% Beneficio indirecto		14.154,79
	SUMA DE G.G. y B.I.		44.884,99
	21.00% I.V.A.		60.996,11
	SUBTOTAL PRESUPUESTO CONTRATA		339.929,97
	CAMINO. SUBTOTAL PRESUPUESTO GENERAL		339.929,97
2. PISTAS DEPORTIVAS			
	MOVIMIENTOS DE TIERRAS		28.320,31
	DEBIDOS		14.852,11
	INSTALACIONES		33.382,97
-01-01	ELECTRICIDAD	17.026,41	
-01-01	GANASAMENTO	16.998,66	
	PAVIMENTACION		67.990,12
	GRUPO		137.243,99
	PUMP TRACK		70.752,43
	EQUIPAMIENTO		18.350,69
	JARDINERIA		1.437,63
	CONTROL DE CALIDAD		1.422,11
	SEGURIDAD Y SALUDO		8.852,68
	GESTION DE RESIDUOS		1.742,97
	PISTAS DEPORTIVAS. SUBTOTAL EJECUCION MATERIAL		398.209,30
	13.01% Gastos generales		61.767,21
	6.00% Beneficio indirecto		23.892,56
	SUMA DE G.G. y B.I.		85.659,77
	21.00% I.V.A.		89.522,60
	SUBTOTAL PRESUPUESTO CONTRATA		573.381,67
	PISTAS DEPORTIVAS. SUBTOTAL PRESUPUESTO GENERAL		573.381,67
	TOTAL EJECUCION MATERIAL		634.288,18
	13.01% Gastos generales		66.467,46
	6.00% Beneficio indirecto		38.997,29
	SUMA DE G.G. y B.I.		105.464,75
	21.00% I.V.A.		158.508,61
	TOTAL PRESUPUESTO CONTRATA		913.311,55
	CAMINO + PISTAS DEPORTIVAS. TOTAL PRESUPUESTO GENERAL		913.311,55

* Dirulaguntzei begira, proiektuan bidegorrari dagozkion obrak eta kirol instalakuntzei dagozkionak berezita agertzen dira, nahiz eta dena batera egingo den.

ESKUac593b6-0427-4abc-96ad-5a2ff44ea27f



paraleloan kokatzen da, bideari atxikita, eta malda leuna duela, tirolina irristatzeko. Planteamendua egungo instalazioaren baldintza berberak erreproduzitzea da, ez da instalazio berria.

Aurrekontua, guztira ,1.022.908,92 €-koa da, % 21eko BEZa barne, horietatik 845.379,28 € printzipalari dagozkio eta 158.508,62 € % 21eko BEZari. Kontratuaren balio zenbatetsia 845.379,28 €-koa da. Proiektuaren EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA 634.288,18 eurokoa da.

2.7. UR AGENTZIAREN BAIMENA

Ur Agentziaren aldeko ebazpena jaso da, AO-G-2020-0035 espedienteari dagokiona. Baimena aurreproiektuaren arabera izan zen eta 2022. urtean (urtarrilaren 12an) exekuzio proiektua jakinarazi da. Ur Agentziako teknikariek bilera antolatu da, eta oniritzia eman dute. Jarraipen espediente: SAO-G-2020-0202. Baimena 2022. urteko urriaren 29an amaitzen da; ordurako obrak amaitu gabe egonez gero, epea luzatzeko eskatu beharko da.

3. EBAZPEN PROPOSAMENA

Hori guztia ikusita, hauxe proposatzen da:

LEHENA: Onartzea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren exekuzio-proiektua, Marta Álvarez, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos, Tomás Valenciano, Iñigo Garcia arkitektoak sinatua (VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO SLP) eta EHAEk bisatua.

Bosgarrena.- 2022ko otsailaren 22an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

Lehena.- Onartzea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalazioen eta urbanizazio osagarriaren obraren exekuzio proiektua, Marta Álvarez, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos, Tomás Valenciano eta Iñigo Garcia arkitektoek sinatua.

Bigarrena.- Onartzea proiektu horrek aurreikusten dituen lanen aurrekontua, 913.311,55 eurokoa, % 21eko BEZa barne; horietatik 754.802,93 euro printzipalari dagozkio eta 158.508,62 euro BEZari.

BALIO ZENBATETSIA	BEZa (% 21)	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURR.
754.802,93	158.508,62	913.311,55

Hirugarrena.- Ohartaraztea egiaztatu beharko direla, obraren kontratazio-espedienteak izapidetzen hasi aurretik, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak.

Laugarrena.- Erabaki horiek Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisailari, Hirigintza

ESKUac5593b6-0427-4abc-96ad-5a2ff44ea27f



Azpisailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari jakinaraztea.

Seigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, 2022ko apirilaren 5ean, Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren obrak kontratatzeko espedientea onartzea (2022OASI0003) eta lizitazioari hasiera ematea.

Zazpigarrena.- 2022ko maiatzaren 24an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen huts deklaraztea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren obraren kontratuaren lizitazioa (2022OASI0003), lizitatuak bakarrik aurkeztutako eskaintzak lizitazio-prezioa gainditzen baitzuen. Haren hitzetan, aurrekontuak ez zuen obraren kostua estaltzen.

Zortzigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, beharra ikusi da Marta Álvarez, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos, Tomás Valenciano eta Iñigo Garcia arkitektoek sinatutako Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalazioen eta urbanizazio osagarriaren obraren exekuzio-proiektua aldatzeko, obraren prezioek izandako igoera nabarmena estali ahal izateko. Hala, REV02 izeneko proiektu eguneratua aurkeztu dute aipatutako arkitektoek (VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO, S.L.P) eta ehuneko 12ko igoera izan du aurrekoarekin alderatuta.

Bederatzigarrena.- Horiek horrela, udal arkitektoak 2022ko ekainaren 10ean igorritako AB22_062 txostenean, xehetasun hauek aipatzen ditu:

2. TXOSTENA

2.1. TXOSTENAREN XEDEA:

Txosten honen helburua da onartzea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren exekuzio proiektuaren aldaketa. Gaur egungo merkatuaren egoera kontuan izanda, proiektuaren aldaketak aurrekontuaren eguneratzea du helburu.

2.2. EXEKUZIO PROIEKTUAREKIKO ALDAKETA:

Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren exekuzio proiektuaren aurrekontua aldatu dugu, egungo merkatuaren egoera ikusita prezioen eguneratzea beharrezkoa dela ondorioztatu baita.

Aurreko proiektuarekin alderatuta, aurrekontua % 12 handitu da:

- *Aurreko aurrekontua: 913.311,54 € (BEZa barne)*
- ***Aurrekontu berria: 913.311,54 € x 1,12= 1.022.908,92 (BEZa barne)***
- ***Aurrekontuaren handitzea: 1.022.908,92 €- 913.311,54€= 109.597,38 €***
- *2022ko otsailean onartutako exekuzio proiektuaren aurrekontua 913.311,54 € da, BEZa barne.*
- *2022ko ekainean aurkeztutako exekuzio proiektuaren berrikuspenaren arabera, **1.022.908,92 € da, BEZa barne; hau da, 109.597,38 € handitu da (% 12). Aurrekontuaren igoera hau prezio unitarioen aldaketak eragin du, beraz, ez du partiden deskribapenean zein neurrietan eraginik izan.***



AURREKONTUA:

Proiektuaren EXEKUZIO MATERIALAREN AURREKONTUA 710.402,75 eurokoa da. Obra aurrekontuaren balio zenbatetsia 845.379,15 eurokoa da. **Aurrekontua, guztira, 1.022.908,92 eurokoa da, BEZA barne.**

2.3. EXEKUZIO PROIEKTUAREN ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA:

RESUMEN DE PRESUPUESTO_rev 02

Instalaciones Deportivas y Urbanización de la fase 3 Usabal

CAPITULO RESUMEN EUROS

1_ CAMINO

USABAL1 MOVIMIENTOS DE TIERRAS	30.526,87
USABAL2 DERRIBOS	15.481,23
USABAL3 INSTALACIONES	88.514,91
USABAL4 PAVIMENTACION	77.950,34
USABAL7 EQUIPAMIENTO	7.593,75
USABAL8 JARDINERIA	21.231,89
USABAL9 CONTROL DE CALIDAD	2.417,75
USABAL10 SEGURIDAD Y SALUD.....	4.524,75
USABAL11 GESTION DE RESIDUOS	1.125,37

CAMINO. SUBTOTAL EJECUCIÓN MATERIAL 249.366,86

13,00 % Gastos generales 32.417,69

6,00 % Beneficio industrial 14.962,01

SUMA DE G.G. y B.I. 47.379,70

21,00 % I.V.A. 62.316,78 62.316,78

SUBTOTAL PRESUPUESTO CONTRATA 359.063,34

CAMINO. SUBTOTAL PRESUPUESTO GENERAL 359.063,34

2_ PISTAS DEPORTIVAS

USABAL1 MOVIMIENTOS DE TIERRAS	35.577,62
USABAL2 DERRIBOS	6.194,59
USABAL3 INSTALACIONES	37.437,64
USABAL4 PAVIMENTACION	127.529,94
USABAL5 SKATE	145.415,44
USABAL6 PUMP TRACK	83.322,85
USABAL7 EQUIPAMIENTO	9.115,75
USABAL8 JARDINERIA	1.505,10
USABAL9 CONTROL DE CALIDAD	4.227,11
USABAL10 SEGURIDAD Y SALUD.....	8.845,25
USABAL11 GESTION DE RESIDUOS	1.864,60



PISTAS DEPORTIVAS. SUBTOTAL EJECUCIÓN MATERIAL 461.035,89

13,00 % Gastos generales 59.934,67
6,00 % Beneficio industrial 27.662,15

SUMA DE G.G. y B.I. 87.596,82

21,00 % I.V.A. 115.212,87

TOTAL PRESUPUESTO CONTRATA 663.845,58

PISTAS DEPORTIVAS. SUBTOTAL PRESUPUESTO GENERAL 663.845,58

TOTAL EJECUCIÓN MATERIAL 710.402,75

13,00 % Gastos generales 92.352,36
6,00 % Beneficio industrial 42.624,16

SUMA DE G.G. y B.I. 134.976,52

21,00 % I.V.A. 177.529,65

TOTAL PRESUPUESTO CONTRATA 1.022.908,92

CAMINO + PISTAS DEPORTIVAS. TOTAL PRESUPUESTO GENERAL 1.022.908,92

2.3. EXEKUZIO PROIEKTUAREN ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA:

2022. urteko lehenengo hiruhilekoa oso ezegonkorra izan da eraikuntza alorrean, munduko egoera orokorrak eragin zuzena izan du gure lurraldean ere; eraikuntza materialen kosteen igoera jasateaz gain, horniduran arazoak bizi izan dira, bai atzerapenak, bai lortuezina ere.

Egoera horren adierazle dira Eustatek 2022ko maiatzaren 25ean argitaratutako datuak. Euskal AEko eraikuntza kostuen azken indizearen urtearteko aldakuntza-tasak honako hauek dira:

Beraz, 2022. urtearen hasieratik apirilaren amaiera arte eraikuntza kosteek jasandako igoera % 11,9 izan da eta handitzeko joera mantenduko dela dirudi, hileko % 1,4 igoerarekin. Igoera orokorra ia % 12koa bada ere, eraikuntzako atal bakoitzaren banakatzea edo desglosea aztertuz gero, egitura eta zimentazio lanek jasan dute bereziki igoera, % 17 eta % 13,4, hain zuzen ere.

Kontuan izanda Usabalgo 3. faseko proiektua 2021. urtearen amaieran aurkeztu





zela eta esleipena apirila arte ez zela argitaratu, erabat onargarria da proiektuaren aurrekontuari % 12ko igoera aplikatzea, hilabete honetan argitaratuko den esleipen berriari begira. Are ulergarriagoa projektuan hormigoi lanek duten presentzia ikusita (zimentazio eta egitura lanak).

3. EBAZPEN PROPOSAMENA

Hori guztia ikusita, hauxe proposatzen da:

LEHENA: Onartzea Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalakuntzen eta urbanizazio osagarriaren exekuzio proiektuaren berrikuspena.

*- Aurreko proiektuarekiko aldaketa honako dokumentu hauetan aurkitzen da:
Aurrekontua- REV02.*

BIGARRENA: Proiektuaren aldaketa da aurrekontua eguneratzea, % 12ko igoerarekin, hain zuzen ere:

- Aurreko aurrekontua: 913.311,54 € (BEZa barne)

- Aurrekontu berria: 913.311,54 € x 1,12= 1.022.908,92 (BEZa barne)

- Aurrekontuaren handitzea: 1.022.908,92 €- 913.311,54= 109.597,38 €

III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, bere 231. artikuluan hau zehazten du **obra proiektuei** buruz:

231. artikulua. Obra-proiektua.

1. Lege honetan ezarritakoaren arabera, obra-kontratu bat adjudikatzeko, aldeztu aurretik proiektua egin, gainbegiratu eta onetsi egin behar da, baita haren zuzenketa egin ere; proiektuak zehatz-mehatz adierazi behar du kontratuaren objektua. Kontratazio-organoak onetsiko du proiektua, salbu eta eskumen hori arau juridiko baten bidez beste organo bati eman bazaio berariaz.

2. Proiektua eta obra biak batera adjudikatzekoak direnean, obra egin ahal izateko, kontratazio-organoak proiektua gainbegiratu eta onetsi egin beharko du, eta proiektuaren zuzenketa egin

Halaber, 232. artikulua obrei buruzko sailkapena egiten du eta 233. artikuluan, **proiektuen edukari** eta proiektuak egitetik sortzen diren erantzukizunei buruz, hau xedatzen du:

233. artikulua. Proiektuen edukia eta proiektuak egitetik sortzen den erantzukizuna.

1. Obra-proiektuetan hauek sartu behar dira gutxienez:

a) Txostena, obraren objektua deskribatuta. Honako hauek jasoko dira txosten horretan: aurrekariak eta obrak hasi aurreko egoera, bete beharreko beharrezkoak eta aukeratutako konponbidearen justifikazioa; betiere, aintzakotzat hartu beharreko



faktore guztiak zehaztuta.

b) Delako obra erabat zehazteko beharrezkoak diren plano orokorrak eta xehetasun-planoak, eta, orobat, lursailen okupazioa eta zortasun-eskubideen eta gainerako eskubide errealen itzulketa zedarritzeko planoak, eta, hala badagokio, obrak eginez ukituko diren zerbitzuak zedarritzekoak.

c) Preskripzio tekniko partikularren agiria. Bertan, obrak deskribatuko dira eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adieraziz: lan horiek zer eratarara egingo diren, kontratistak zer betebeharrak tekniko izango dituen, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen kalitatea eta obrak egiteko prozesua nola kontrolatuko diren.

d) Aurrekontua, aurrekontu partzialez osatuta edo ez; unitateko prezioak eta, hala dagokionean, prezio xehatuak ere adierazi beharko ditu, baita neurketen egoera-orrria eta aurrekontua balioesteko beharrezkoak diren zehaztasunak ere. Aurrekontua funtsezko obren arabera antolatuko da, erregelamenduz ezartzen den eran.

e) Argibide moduan, lanak garatzeko egitaraua edo obra egiteko plana; hala badagokio, iraupena eta kostua zehaztuko dira.

f) Obraren zuinetak oinarri izango dituen era guztietako erreferentziak.

g) Segurtasun- eta osasun-azterlana edo, bestela, segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana, obretako segurtasun- eta osasun-arauetan ezarritakoaren arabera.

h) Legezko edo erregelamenduzko arauetan ezarritako agiri guztiak.

2. Hala ere, lizitazioaren oinarrizko aurrekontu moduan BEZik gabe 500.000 eurotik behera dituzten lehen ezarpeneko, eraberritzeko zein konponketa handiak egiteko obren proiektuetarako, eta aurreko artikuluan zerrendatutako gainerako proiektuetarako, erraztu, bateratu zein ezabatu ere egin daiteke goian aipatutako agirietakoren bat edo beste, lege hau garatzeko arauetan zehaztutako moduan, baldin eta horrela egindako agiri hauek nahikoa badira obrak zehaztu, balioetsi eta egiteko. Dena den, arau espezifikoetan horrela aurreikusten denean baino ezingo dira aurkeztu gabe utzi aurreko apartatuko g) letran aipatzen diren agiriak.

3. Obrak egiteko erabiliko diren lurren azterlan geotekniko bat ere sartu behar da proiektuan, obraren izaerarekin bateraezina ez bada behintzat; baita kontratuaren objektua hobeto zehazteko beharrezko diren aldez aurreko txostenak eta azterlanak ere.

4. Proiektua osorik Administrazioak berak kontratatu duenean, proiektuaren egileak edo egileek lege honetan ezartzen den moduan hartuko dute bere gain erantzukizuna. Prestazioa Administrazioaren lankidetzaz eta hark gainbegiraturik ematen bada, lankidetzaren arlokoak soilik izango dira erantzukizunak. Proiektu batek azterlan geotekniko bat biltzen duenean eta hartan ez direnean aurreikusi egikaritzen ari den kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10etik gorako igoera dakarten inguruabar jakin batzuk, haren egileari edo egileei 315. artikulua ezartzen duen kalte-ordaina eskatu ahalko zaie, baina, haren 1. apartatuan aipatzen den ehuneko 20ko portzentajearen ordean, horretarako, ehuneko 10eko portzentajea ezarri beharko da.

5. Proiektuak nahitaez bete beharrekoak diren jarraibide teknikoaren arabera egingo



dira.

6. Obrak Administrazio Publikoak ustiatzen dituenean, obra ustiatu behar duen Administrazioaren inbertsioen egungo balio garbia, kostuak eta diru-sarrerak jaso beharko da proiektuan.

Halaber, 234.3 artikulua hau xedatzen du enpresaburuak proiektua aurkezteari buruz:

3. Kontratatik kontratazio-organoari aurkeztuko dio proiektua, organo horrek proiektua gainbegiratu, onetsi eta zuinta egin dezan. Administrazioak edo erakunde kontratatzaileak, ikusten badu jasotako proiektuan akatsak daudela edo prezioak ezegokiak direla, akatsak zuzentzeko eskatuko dio kontratistari, 314. artikuluan ezarritakoaren arabera; bitartean, eta Administrazioak edo erakunde kontratatzaileak berriz ere proiektua gainbegiratu, onetsi eta zuinta egin arte, ezingo da obra egiten hasi. Kontratazio-organoa eta kontratista ez badira ados jartzen prezioei buruz, kontratista salbuetsita geratuko da eta ez du obrak egin beharrik izango, eta eskubide bakarra izango du kontratazio-organoaren aurrean: hark proiektua idazteko lanak ordaintzea.

Horri buruz, hau zehazten du 314. artikulua:

314. artikulua. Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea.

1. Zerbitzu-kontrata obra-proiektu bat osorik egiteko baldin bada eta kontratistaren erruz akatsik, trakeskeria teknikorik edo oker materialik baldin badago, egin beharreko zer edo zer egin gabe geratu baldin bada edo lege edo erregelamendurik urratu baldin bada, kontratazio-organoak aginduko dio egin beharreko zuzenketak egiteko. Horretarako, epe jakin bat utziko dio, baina inoiz ez bi hilabete baino luzeagoa.

2. Epe hori igaro arren akatsak zuzendu ez badira, Administrazioak, nondik norakoak kontuan hartuta, edo kontrata suntsiaraztea erabaki dezake, edo kontratistari beste epe bat ematea.

3. Lehenengo kasuan, bermea bahitu beharko da, eta kontratistak Administrazioari kontratuaren prezioaren ehuneko 25ekoaren pareko kalte-ordaina emateko betebeharra edukiko du.

4. Bigarren kasuan, zuzendu gabeko akatsak konpontzeko emango den epe berria hilabetekoa eta luzatu ezina izango da, eta kontratuaren prezioaren ehuneko 25ekoaren pareko zigorra jasoko du kontratistak.

5. Kontratistak beste urraketarik egiten badu, suntsitu egin beharko da kontrata, eta Administrazioari prezio itunduaren adinako kalte-ordaina eman beharko dio eta bermea galduko du.

6. Kontratistak, proiektua egiteari uko egiten badiu azken epea eman aurreko edozein unetan, kontratuaren prezioaren erdiaren pareko kalte-ordaina eman beharko du, eta bermea galduko du, gainera.



Beraz, kasu honetan 233., 234. eta 314. artikuluetan xedatutakoa baliatu da, hasierako proiektuan jasotako prezioak errealitatera egokitu eta horrek prezio egokiak izateko.

Kontratu honek, beraz, **administrazio-izaera** du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrita; obra kontratua da hain zuzen ere, aipatutako Legearen 13. artikuluan xedaturikoaren arabera. Izan ere, SPKLren 13.1 artikuluan araututakoaren arabera, obra kontratuaren xedea, I. Eranskinean aurreikusitako lanen bat exekutatzea izango dela ikusirik, burutu nahi diren lanak aipaturiko Eranskinaren 45.21 atalean sailkaturikoak agertzen dira: «*Eraikinak era ingeniariaritzaz zibileko obra bereziak eraikitzea (zubiak, tunelak, eta abar)*».

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, tokiko obra publikotzat jo daitezke toki erakundeek egindako lanak, baldin eta beren eskumeneko zerbitzuak eta jarduerak emateko alorretan gauzatzen badira, kontratu legeria orokorrak ezarritako ezaugarriak betetzen badituzte eta beren diru-funtsekin edota beste batzuetako erakunde zein norbanakoen diru-laguntzarekin finantzatzen badira. Lege horren 25.2 artikulua d) atalean xedaturikoaren arabera, Udalak eskumena du bere titularitateko ekipamenduen gainean lanak burutzeko. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei aplikagarri zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua, udalerrien eskumen propioak arautzen dituenak, udalerrien eskumen propioetat hartzen du, beste batzuen artean, hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea, kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea, kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea, udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat, udalerrienak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne), udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu –motordun zein bestelako– eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea, establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea, ea.

Beraz, lanen xedea eta izaera aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, obra hauek **lehen ezarpeneko-obrak** direla esan daiteke. Horretarako, egoki diren kudeaketak eta beharrezkoa den hasierako dokumentazioa eginda, izenpetzaileak organo eskudunari igortzen dio, onar dezan, aipaturiko kontratuari dagokion espedienteak, txostenaren eta proposamenaren arabera.



Proiektuan definituriko **obraren aurrekontu orokorra 845.379,28 eurokoa da BEZik gabe**, beraz, SPKLren 235. artikulua xedatutako **ikuskapena egin behar da**, kontratuaren zenbatekoak 500.000 euro gainditzen dituelako. Halaber, adierazi behar da obra publikoaren proiektu horri buruzko txostena eman duela udal arkitekto teknikoak.

BALIO ZENBATETSIA	BEZa (% 21)	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURR.
845.379,28	177.529,65	1.022.908,92

Proiektua onartu ondoren, SPKLren 236. artikulua xedatzen du, obraren kontratazio-espeditentia izapidetzen hasi aurretik, **proiektuaren zuinketa** egin beharko dela, obraren errealitate geometrikoa egiaztatzeko eta obra hori arazorik gabe egiteko beharrezko lurrak erabilgarri daudela ziurtatzeko. Kasu honetan esan behar da, txosten hau igortzen den momentuan, **ondasunen erabilgarritasuna ziurtatuta dagoela eta dagokion zuinketa-akta egin dela**.

Zuinketa egitea ezinbestean bete beharreko baldintza izango da esleipen-jardunbide guztietan. Era berean, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrikoak diren kasu guztiak egiaztatu behar dira.

Artikulu horren 4. atalak xedatzen du, proiektuaren zuinketa egin ostean, proiektua kontratazio espeditenteari erantsi behar zaiola.

IV.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan toki erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

- 1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.*
- 2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.*



Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 845.379,28 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.656.409 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak zenbait eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organuari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Marta Álvarez, Jon Muniategiandikoetxea, Javier Ubillos, Tomás Valenciano eta Iñigo Garcia arkitektoek sinatutako Tolosako Usabalgo 3. faseko kirol instalazioen eta urbanizazio osagarriaren obraren exekuzio-proiektuaren aldaketa, arestian aipatu bezala, hura egungo prezioetara egokitzeko.

Bigarrena.- Onartzea proiektu berriak aurreikusten dituen lanen aurrekontua 1.022.908,92 eurokoa, %21eko BEZa barne; horietatik 845.379,28 euro printzipalari dagozkio eta 177.529,65 euro BEZari. Aurrekontu berri horrek, aurrekoarekin alderatuta, ehuneko 12ko igoera izan du.

BALIO ZENBATETSIA	BEZa (% 21)	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURR.
845.379,28	177.529,65	1.022.908,92

Hirugarrena.- Ohartaraztea obraren kontratazio-espeditentia izapidetzen hasi aurretik, egindako proiektuan agertzen diren eta kontratua egiteko oinarrizkoak diren kasu guztiak egiaztatu beharko direla.

Laugarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:



2022/1831 DEKRETUA: 2022/16 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2022/1831 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2022KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:

16. zenbaki duena, 311.787,54 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENEA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

16. zenbaki duena, 311.787,54 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 13:55ean.



TOLOSAKO
UDALA

2022IGBA0015

ALKATEA

IDAZKARIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUac5593b6-0427-4abc-96ad-5a2ff44ea27f**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IGBA0015-2022-06-21 Gobernu batzarra akta/2022-06-21 Gobernu